

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

Proposamena: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza

GAIA.- ERABAKI-PROPOSAMENA, LANALDI IRREGULARRA KONPENTSATZEKO SISTEMA ONARTZEKO: "KONPENTSAZIO-ATSEDENALDIA".

Foru-erakundeak lanaldi erregularreko lan-gaindikin teorikoei erantzun izan die, sistema jakin baten bidez, eta sistema hori eguneratu egin behar da, egungo inguruabarretara egokitzeko.

Izan ere, alde batetik, baliteke instantzia-erabakiaren espiritua gaindituta eta, neurri handi batean, desnaturalizatuta egotea, atsedenaldiak erabakiaren babesean likidatzen baitira, lan-kontratuen iraupena edozein izanda ere, eta, bestetik, egia da aldi baterako kontratu horiek amaitzean (normalean ordezkapeneko kontratuak izaten dira) kalte-ordaina kobratzeko eskubideak hein batean konpentsatzen eta ordaintzen duela lan-kontratuaren prekaritatea eta behin-behinekotasuna, gure jurisprudentziarik berrienean onartu izan den bezala, EJANren epaiaren babesean.

Puntu honetan, beraz, erabaki haren edukia harmonizatu behar da, egungo justizia-, efizientzia- eta modernotasun-parametroen argitan, haren aplikazioa eta irismena bere izaerara hertsiki egokituz. Hain zuzen ere, formula berri bat ezarri behar da kalkulua egiteko, aurreko sistema sinplifikatzeko. Aurreko formula proposamen honekin batera doan eranskinean jasota dago.

Berebat, interesgarritzat jo da puntu honetan aplikazioaren hartzailleak zehaztea, ordainketa eta konpentsazioa jaso dezaketen kasuak argi eta garbi definituta ager daitezen. Hala, bereizi egin ahal izango dira konpentsazio-atsekenaldia deritzon kontzeptuaren ordainketa eta lanaldiaren luzapen edo aparteko orduak, ez baitira zilegi, aplikatu beharreko hitzarmenak berariaz baztertzen dituelako, gero adieraziko den bezala.

Gai horretaz arduratzeko eskumena GUFeko Gobernu Batzordeari dagokio, GUFEn Estatutuak aldarazteari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauko 5. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Horregatik guztiagatik, idazki honen sinatzaileak Gobernu Batzordeari aurkezten dio, aztertu eta onar dezan, honako



ERABAKI-PROPOSAMENA

Bakarra.- GUFeko lanaldia konpentsatzeko sistema onartzea, erabaki honen datatik aurrera aplikatzeko. Testua eranskin gisa gehitu da. Jakinaraz bedi.

Bilbon, 2024ko urriaren 25ean

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA


Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA


Sin.: David Latxaga Ugartemendia



ERANSKINA

KONPENTSAZIO-ATSEDENALDIAREN FORMULA

Formula:
$$\frac{\text{LANPOSTUAREN PREZIOA} + \text{ANTZINATASUNA}}{\text{HITZARMENENKO ORDUAK}} = \text{PREZIOA ORDUKO}$$

Orduko prezio hori kalkulatzeko, kontratuaren indarraldian egindako ordu guztiak hartzen dira kontuan, KONTSUMOKO MAILEGU, ASEGURU ETA BESTELAKOetatik eratorritako kontzeptuengatik ordaindutakoak izan ezik, eta aldi berari dagokion soldata-ordainagirian ordaindutakoa kentzen da.

“Egindako orduak hitzarmenaren 23.3, 40. eta 46. artikuluetan araututakoak dira, edo hurrengo hitzarmenetan horiek ordeztzen dituzten artikuluetan”.

Konpentsazio-atsedenaldia ez da inoiz ere karteldegiko ordu-gehiegia, baizik eta lana benetan egindako orduen truke ordaintzen duen formula bat, urtean zehar modu irregularrean banatzen den karteldegi baten arabera.

Gutzizko ordu-kopuru hori automatizatu gabe dago oraindik.

Formularen hartzaileak:

- 1- Ordezko langileak
 - a. Iraupen luzeko kontratuak.
 - b. Iraupen laburreko kontratuak.
- 2- Kanpoan geratzen dira lanpostu hutsak edo antzekoak betetzeko lan-kontratua duten langileak. Eta langile finkoak.

Noiz aplikatzen den formula:

A) Kontratua amaitu ondoren, urte naturala kontuan izan gabe.

B) Salbu eta opor- eta konpentsazio-kontzeptuak baliatu ezin izan diren gerora sortutako kontratu-amaierak, langileak edo haren jaraunslek eskatuta.

Noiztik aplikatzen dugun formula:

2025eko urtarrilaren 1etik